



EBBren Prentsa Bulegoa
EUZKADIKo
PRENTSA IDAZKOLA



EAJ-PNVren Aberri Batzarraren agiria Xabier Arzalluzen heriotzagatik

Euzkadi Buru Batzarrak eta Euzko Alderdi Jeltzalearen Aberri Batzarrak otsailaren 28an Bilbon zendu zen eta urteotan presidente izan genuen Xabier Arzalluz Antia jaunari egin nahi diogu gorazarre. Alderdikide guztiontzat, une mingarria da eta, era berean, gure aintzatespena eta konpromisoa adieraztekoa.

Doluminez gaude, erakunde politiko honen historian errepikatu ezin den gizasemea galdu dugulako. Bere galerak hutsune mingarria dakar alderdi honen barne egiturari. Izan ere, Xabier Arzalluz izan zen Alderdi honek XX. mende bukaeran eta oraingo XXI. mende hasieran politikagintzan izan duen ordezkariarik behinena.

Aintzatespena ere adierazi behar dugu, berarengan aitortu behar ditugulako abertzaletasunari eta euskal aberriaren kausari ez ezik, Sabino Aranak euskal herriaren askapen nazional eta sozialerako tresna gisa sortu zuen EAJ-PNVri ere egin zien ekarpen handia. Gaur egun Euzko Alderdi Jeltzalearen ordezkari garenok asko ikasi genuen Xabier Arzalluzengandik. Maisu ona izan zen egoerak aztertzerakoan, hartu beharreko bidea erabakitzerakoan. Beti denon ongiaren alde eginez; hemen bizi, lan egin eta beren etorkizuna eraiki nahi dutenen interesen mesedetan. Horregatik guztiagatik, egokia eta zuzena da aitortzea erakunde hau den modukoa dela, neurri handi batean, berari esker. Bere irakasbideei esker. Bere printzipioei esker. Bere zorrotasunari eta, aldi berean, bere pragmatismoari esker.

Eta konpromisoa ere sentitzen dugu. Xabier Arzalluzengandik ikasi genuen erakunde hau ezin dela gelditu. Funtsezko katebegi batzuk, zoritxarrez, bidean geratu arren, kateak hazten jarraitu behar du eta gure Nazioaren geroa eraikitzen jarraitu behar du. Hori da Arzalluzek utzi digun ondarea. Euskadi altxatzen jarraitzeko ardura. Egunez egun. Pausoz pauso. Erabakiz erabaki, Euskadi burujabe eta askea lortu arte.

Ikurrinak haga erdian jarri ditugu Euskadiko Batzoki guztietan eta bihotz jeltzale guztiok gogoan dugu gaur gure liderra. Hori dena da une honetan sentitzen dugun saminaren erakusle, baina era berean erakusten du Xabier Arzalluz jauna gure alderdikide izateak sentiarazten digun harrotasuna.